

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren sektorea %8,9 hazi da 2006ko lehenengo hiruhilekoan


Eraikuntza %10,9 hazi da eta Obra Zibila %4,2

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, 2006ko lehenengo hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren sektoreak %8,9ko hazkunde nominala izan du 2005eko hiruhileko beraren aldean.

Estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean, 2006ko lehenengo hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %1,3 hazi da (2005eko laugarren hiruhilekoaren aldean); horrela, aurreko hiruhilekoko hiruhileko arteko tasa (%3,3) aintzat hartuta, desazelerazio txikia izan du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Koiunturari buruzko Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundera



Iturria: Eustat

Eraikuntzaren sektoreak 2006ko lehenengo hiruhilekoan izan duen bilakaerak Obra Zibila baino gehiago izan du euskarri Eraikuntzaren azpisektorea: eraikuntzak %10,9ko urte arteko igoera izan du eta Obra Zibilak %4,2koa.

Hiruhileko artean, sektoreak 2006ko lehenengo hiruhilekoan izan zuen jarduera 2005eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuz gero, eraikuntzaren azpisektoreak %2,4ko bilakaera positiboa izan du eta obra zibilen azpisektoreak hiruhileko arteko hazkunde negatiboa izan du (%2,6). Beraz, eraikuntzak profil pixka bat bizkortua erakusten duen bitartean obra zibilak hiruhileko artean atzeratze nabarmena izan du.

Datu gordinak emanez gero: eraikuntzaren sektoreko enplegua, 2006ko lehenengo hiruhilekoan, %2,2 gehitu da aurreko urteko aldi beraren aldean, eta 2005eko laugarren hiruhilekoarekin erkatuta berdin (%0,0) mantendu da.

Taula: 2006ko 1go hiruhilekoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Koiunturari buruzko indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	1.hir.06/1.hir.05	At/At-1 (1)	1.hir.06/4.hir.05	4.hir.05/3.hir.05
Produkzioaren indizea	8,9	8,9	1,3	3,3
Eraikuntza	10,9	10,9	2,4	2,0
Obra zibila	4,2	4,2	-2,6	6,6
Landunen indizeak	-	-	0,0	0,8

(1) t urteko urtariletik azken hiruhilekora arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin alderatuta.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>